

ANALISIA



ETAk urrats ausarta eman du



Xabier Letona
@xletona

Iritsi da unea, azkenean: ETA desmobilizatu egingo da, desegin, desagertu... Kosta egiten da gaiaz idaztea. Egia esan, emoziorik sakon eta sentikorrenak 2011ko urriaren 20an bizi izan zituen euskal gizarteak, ETAk bere jarduera armatuaren behin betiko etena iragarri zuenean.

Burua hotz idatzi beharko litzateke, baina 2011ko larrazken hartan bezala, ez da samurra. Asko bizi izan da, asko sufritu, lerro bakan batzuek 60 urteko historia nola-hala irents dezaten. Hotz-beroaan jardun behar, beraz, azken zazpi urteetan arima kateatua nola arrastaka doan bake prozesuaren analisia egitean. Ezker abertzalea da bake prozesuan interesik handiena duena, eta bera ari da aurrea ateratzeko gehien jartzen. Eragindako sufrimenduari buruz ETAk egindako agiria horren lekuko: ausarta izan da. Aurreikusitako moduan, hainbat buru hainbat aburu.

Zer izan da ETA? Mutur batean terrorismorik basatiena, bestean nazio askapenerako erakundea. Horra memoriaren borroka. Horra airean geratutako den galdera nagusia, hainbat eta hainbat erantzunekin, lehen gudu zelaian

moduan, orain liburu eta hedabideetako "borroka toki gatazkaz bete".

Historia irabazleak egiten ei du. Nola kontatuko da berau 20 urtera? Nola mende batera? Besteak beste, hori da jokoan orain. Jokoan den moduan, eguneroko politikan azken mugimendu hauen ondorioak zeintzuk izango diren ikustea, izan esparru instituzionalean edo han-hemenka dantzan diren hamaika borroka sozio-politikotan.

Garrantzitsuena, alabaina, pertsonen sufrimendua arintzera edo ezabatzerantz bideratutako guztia da, funtsean, preso politikoak, iheslariak eta biktimen esparrukoak. Mugimenduak ez ei dira behar eta etorriko. Aitzakien dantzaz bada-kigu zerbait, baina berandu baino lehen hastea da kontua. Gainera, pertsonen aurretik jartzen dira beti prozesu politikoak, boteretik zenbat eta gertuago, are eta gehiago. Jar bitez lehenik pertsonak behingoz, euskal gizartearentzat ere hori izango baita onuragarriena. Birtartean, ongi etorriak aldebakarreko bideak, aldebakorik ez daudenean, horiek dira geratzen direnak eta.

Hainbeste dago esateko, hainbeste partekatze, hainbeste irensteko! ■

EKONOMIAREN TALAIAN

Publizitate enpresariala eta politikoa?



Juan Mari Arregi

Harrituta nago nola moldatzen den Iñigo Urkullu lehendakaria –edo nola moldatzen duten– egunero telebistako kameran aurrean, irratian edo prentsan egoteko bere "produktua" eta irudia saltzen. Ez dakit beste erkidegoetako gobernu-presidenteek zer egingo ote duten euren irudia nabarmentzeko. Edozein kasutan, seguruenik ez Urkulluk bezainbeste, egunero ari baita –eta batzuetan egunean bi aldiz ere bai– gauza bera egiten. Halako jokabide batek herritarren asperdura eragin dezake, eta ondorioz, bere "mezuek" oharkabean igarotzeko arriskua dute.

Joan den astean hedabideen aurrean aurkeztu dute, Confebask patronalarekin batera, baskongadetarako enplegu plana, hiru urtean 100.000 lanpostu sortzea aurreikusten duena, horietatik 70.000 jarduera ekonomikoa haziko delako eta gainerakoa belaunaldi arteko erreleboari aurre egiteko. Ziurtatu dutenez, enpresek zailtasunak dituzte euren beharrak asetzeko, batez ere lan merkatuan sartu diren langile gazteen formazio eta espezializazio faltagatik.

Zein enplegu, formazio eta soldata politika sustatuko dute administrazioetik enplegu hori errazteko? Prekarietatea, behin-behinekotasuna eta soldata baxuak ez dira batere erakargarriak gazteentzat. Ez da nahikoa 100.000 enplegu hitz ematea. Beharrezkoa da administrazioak eta patronalak esaterako Lanbide Heziketa sustatzea, honek enplegu eta soldata duinak izango baditu. Gazteek bermatuta eduki beharko lukete euren gaitasunak aseko dituzten lanbideetarako sarbidea. Horrek Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza politikaren arduraren behar luke izan; lehendakariaren iragarpen bakoitzak ez dezan eman bere irudia saldu eta publizitateko beste kanpaina bat.